

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek hala eskatuta, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Orokorraren 2012ko ekitaldiko fiskalizazio txostena mamitu du, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAUren urteko kontuak ere barne hartzen dituen (GHK). Txostena HKEEko Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legezketasunaren atalean, Epaitegi honen iritzira, Kontsortzioak zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia. GHK-k legezketasuna betetzeari dagokionez, HKEEk iritzi bera azaldu du, txostenean zehaztasunez jaso diren hainbat salbuespen salbuetsita.

Honela, bada, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroaren (GHKZ) proiektuaren erredakzioa, zuzendaritza fakultatiboa, eraikuntza eta ustiaketa kontratuaren 2013ko azaroko ebazpenari dagokionez, enpresa esleipendunari guztira ordaindu beharreko kalte-ordaina 8,2 milioi euroan kuantifikatzen duena, HKEEk adierazi du ez dagoela egindako lanen likidazio edo ziurtagiririk, gauzatutako ordainketen zati bat justifikatuko duenik.

Gainera, HKEEk azpimarratu du GHK-k ez dituela kontratazio publikoko arauak hainbatetan bete; esanguratsuena 2010ean GHKZren ingeniartzako laguntza teknikoa emateko kontratuan egindako aldaketak dira, lehia printzipioak urratu dituen; baita, 2009ko abenduaren 22an izenpetutako Zaldunbordako eraikinaren ingeniartzak kontratuan oinarritzekoak diren alderdiak ez zehaztu izana, hala nola, xedea, prezioa eta epea.

2012ko ekitaldiari dagozkion Kontsortzioaren eta GHKren Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak bietan adierazi du ez dezakeela horien gaineko iritzirik plazaratu, txostenean deskribatu diren salbuespen eta zalantza egoerek duten garrantzia dela eta.

Honela, bada, Kontsortzioari dagokionez esaten du, GHKZren kontratu nagusia suntsitu ondoren, zalantza egoera sortzen dela GFAk diru-laguntza kontzeptuan ordaindutako 26,6 milioi euroren itzulketaren eskagarritasuna dela eta, harik eta proiektua berriz definitzen ez den edo beste berri bat mamitzen ez den arte, 7/2008 FARI egokitzen zaion jakiteko bide emango duena. Berebat, azpimarratu du 2012ko ekitaldiko Urteko Kontuek ez dutela GHK-k bere entitate mailegu-emaileekiko dituen ordainketa obligazioen aurrean -finantzaketa kontratuetatik eratorritakoak-, Kontsortzioak duen erantzukizun solidarioaren gaineko informaziorik ematen; bada, 2012ko abenduaren 31n 9,7 milioi euroren zenbatekoa amortizatzeko dago eta izenpetutako finantza baliabide eratorriek 54,1 milioi euroren balio-galera izan dezakete.

Bestetara, GHKren kasuan, bestelako salbuespen eta zalantzen artean zera azpimarratu da: 2012ko ekitaldiko Urteko Kontuek ez dutela inongo zuzkidurarik jasotzen GHKZren kontratu nagusia suntsitzeari dagokionez, 2011ko azaroaz geroztik geldirik zegoena, non 8,2 milioi euroren kalte-ordaina adostu den; ibilgetu ukiezineko 8,3 milioi euroren zenbatekoa, GHKZren ingeniari eta eraikuntza kontratuei eta 2011ko finantza gastuei dagokiena, galeretan jaso behar litzatekeela; kontratua eten eta suntsitu izanaren ondorioz, zalantza dagoela 2012ko abenduaren 31ko ibilgetu ukiezineko lursailak erosi eta bideak eraikitze erregistraturiko balioaren berreskuragarritasunari dagokionez, 26,4 milioi euroren zenbatekoan; eta azkenik, erregistratu gabeko hainbat zenbateko ordaintzeko daudela; zuzkitu gabe daudelarik, berebat, kontratuaren eten eta balizko kitapenagatik, beste kontratuetakoa esleipen hartzaileek galdatu ditzaketan kalte-ordain eskubideak.

Halaber, Epaitegiak barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta beste hainbat ataletan. Hauen artean azpimarratzekoa da zalantza egoera dagoela egindako inbertsio, adostutako finantzaketa eragiketa eta jasotako diru-laguntzekiko eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren Aurrerapen Agiriaren denbora-epea aintzat hartuta, 2016ko ekitaldian amaitzen dena, beharrezko egiten dela berau eguneratzea, Gipuzkoan hondakinen tratamenduari irtenbidea emateko.